



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

18 ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Nafarroako Parlamentuak “medicamentazo” izenarekin ezagutzen den Dekretuaren aplikazioa arbuiatzeko, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa, Nafarroako Parlamentuak sendagaiak finantzazio publikotik kanpo uztea arbuiatzeko, «Socialistas del Parlamento de Navarra» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek aurkeztua (4. or.).
- Mozioa, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernuak premiatzen du ez ditzan aplikatu Espainiako Gobernuak sendagai batzuk Osasun Publikotik kanpo uzteko hartu dituen neurriak. (5. or.).
- Mozioa, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuak premiatzen du “medicamentazo” izenarekin ezagutzen dena atzera bota dadin eskatzeko. (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Agedna enpresaren grebak kalteturiko gutxitze psikikoko pertsonen arreta bermatzeko Gizarte Ongizate Departamentuak aurreikusi dituen neurriei buruzko galdera, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilereei buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Hidrocantábrico konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Catejónen eraikitzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
- Iberdrola konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Catejónen eraikitzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat Tuteran-Cintruénigo errepidearen NA-160 eskualde errepidean, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jardueri buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).
- Nafarroako Gobernuak laneko arriskuei aurrea hartzeko aurreikusi dituen jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Lanaldia murrizteak Nafarroako ekonomian izango lukeen eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze-ko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Akats zuzenketa (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze-ko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Akats zuzenketa (16. or.).

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Parlamentuak “medicamentazo” izenarekin ezagutzen den Dekretuaren aplikazioa arbuiatzeko

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Parlamentuak “medicamentazo” izenarekin ezagutzen den Dekretuaren aplikazioa arbuiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du.

Gobernu zentralak berriki onetsi du zenbait sendagai Gizarte Segurantzaren deskontuetatik kanpo uzten dituen Dekretu bat, jendeak “medicamentazo” izenarekin ezagutzen duena.

Jakinik dekretu horrek kaltea ekarriko diela ekonomikoki babes gutxiena duten hirritarrei,

esate baterako pentsiodunei, jubilatuei, adineko pertsoneri eta gaixo egon ohi direnei, komenigarria da Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatean sortuko den behar horri erantzutea.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Nafarroako Parlamentuari hurrengo erabaki proposamena aurkeztu zaio:

1.- Nafarroako Parlamentuak “medicamentazo” izenarekin ezagutzen den Dekretuaren aplikazioa arbuiatzen du, uste delako arrazoi mediko eta sozial aski daudela hori bidegabe eta inolidario egiten dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak “medicamentazo” izenekoaren aurrean daukan jarrera arbuiatzen du: gobernuak batzuek dekretua laudatu egiten dute eta beste batzuek krikritatu egiten dute; Nafarroako Gobernuak bereganatu egiten du Gobernu zentralaren politika fiskal eta finantzarioa, baina ez ditu politikak horren ondorio negatiboak bereganatu nahi.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez Gobernu zentralaren Dekretuak kanpo utzitako sendagaietatik heldu diren kostuak beregana ditzan.

Iruñean, 1998ko otsailaren 23an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, Nafarroako Parlamentuak sendagaiak finantzazio publikotik kanpo uztea arbuiaitzeko

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» ETA «IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEEK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen «Socialistas del Parlamento de Navarra» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek Nafarroako Parlamentuak sendagaiak finantzazio publikotik kanpo uztea arbuiaitzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztaibadari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra (PSN-PSOE) eta Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute Osasun Batzordean eztaibada dadin.

Nafarroako Parlamentuak argi eta garbi arbuiaitzen du 869 sendagai finantzazio publikotik kanpo utzi eta gure hiritarrek erabat ordaindu behar izatea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio 869 sendagai horiek finantzazio publikotik kanpo uzteko erabakia atzera botatzea exigitu dezan, daukan edukiarengatik –gizarte prestazioei eta osasun kalitateari eginen dien kaltea, dirua aurrezteko beste xederik ez duelako– eta formarengatik –gure komunitateari ez zaio kontsultarik egin eta alde bakar batek gure foru araubidea aldarazi du–.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du tinko zuzen dakion Gobernu zentralari, inongo neuririk ez dezan hartu sendagaiak, sistema publikoak finantzatuak, eskuratze-ko gaurko baldintzetan eragin negatiboa izanen duenik.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du gure legezko subiranotasuna erabil dezan nafarrek irabazitako eskubide zilegien defentsan, legeak ematen dizkigun eskumenak garatuz, Nafarroan bi motatako hiritarrak egotea saihestuz, alegia sendagaiak ordain ditzaketanak eta sendagaiak ordaintzerik ez dutenak, modu horretan, gainera, Osasun Sistema Publikoa eta bera sostengatzen duen elkartasun-printzipioa hausten duelako.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Foru Parlamentariak: José M^a Ezpeleta Martínez eta Isabel Arboniés Bermejo

Mozioa. Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernuak pre- miatzen du ez ditzan aplika Espainiako Gobernuak sendagai batzuk Osasun Publikotik kanpo uzteko hartu dituen neurriak

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernuak pre-
miatzen du ez ditzan aplika Espainiako Gobernuak sendagai batzuk Osasun Publikotik kanpo uzteko hartu dituen neurriak. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, Biltzarreko Mahaiaren ondoko mozioa aurkeztu du.

PP alderdia Estatuan burutzen ari den politika neoliberallean –UPN horren partaidea da haren parlamentario nafarrak Alderdi Popularraren Taldeari atxikirik daudelako–, diru-baliabide gutxien daukaten gizarteko jende-multzoen kalterako politika ekonomiko eta soziala bultzatzen ari da. Jokaera horrek jarraipena du Nafarroako Gobernuak burutzen ari den politikan eta eragin oso larria izaten ari da prestazioetan eta pentsioetan (gogorra dezagun Toledoko Hitzarmena), zergen erreforma eta azken egun hauetan “medicamentazo” izenarekin ezagutu den dekretuan ere, azken kasu horretan ere gizartean kezka handia sortuz.

Berriz ere, osasun publikoa neurri ekonomizistek ukituta aterata da, sendagilearen eta eriaeren arteko harremana kaltetu dezaketenez neurriak eta hain zuzen ere farmazian bilatu nahi den balizko aurrezkiaren aurka joan daitekeen gatazka bat

sortu dutenak. Modu horretan, gainera, batzuen eta besteen arteko arazoa sortu da.

Argi dago Nafarroako Gobernuak partaidetza duela Lurraldearteko Kontseiluan, baina ez du deus ere egin ezarri nahi den neurria aurrera aterata ez dadin.

Argi dago Nafarroako Gobernuak, bere Komunitatean publizitate mezuak baimendu edo osasun profesionalei zuzendutako promozioa kontrolatzeaz gainera, zerbait egin behar duela; Lurralde honetan egiten diren entseiu klinikoak edo laborategiak ikuskatzeaz gainera, zerbait egin behar duela; gure ustez gaitasuna izan beharko luke ezarri nahi den neurri horrek eta antzekoek bere komunitatean indarrik izan ez dezaten. Izan ere, alferrik delako planteaturiko arazoaren gutxi-asko aurkakoak diren adierazpenak egitea, baldin eta gero parlamentario horiek eta Osasunaren Lurraldearteko Kontseiluko ordezkariak farmazi gastua murrizteko lankidetzan ari diren medikuak diruz saritzearen aldeko hitzak badituzte. Gainera, sendagaietan aurrezten den diruaren ehuneko 80 profesional haien nominetara bidaltzen bada.

Azkenik, argi utzi nahi dugu ezarri nahi diren neurri horiekin, jende askok beren buruak medikatzera joko duela inongo irizpide medikorik gabe, prezio berean azkarrago suertatzen delako.

Hori guztia dela eta, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak ondoko erabaki proposamena egiten dio Nafarroako Parlamentuari.

1. “Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitatearen Gobernuak premiatzen du ez aplikatzeko Espainiako Gobernuak sendagai batzuk osasun publikotik kanpo uzteko ezarritako neurriak”.

2. “Nafarroako Parlamentuak Gobernuak premiatzen du behar diren neurri ekonomiko eta legezko neurriak hartzeko, Foru Komunitatetik bertatik erabateko kudeaketa egin ahal izateko behar diren tresnak zabal dituzan”.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Foru Parlamentaria: Xabier Vélez Medrano

Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuia premiatzen duena “medicamentazo” izenarekin ezagutzen dena atzera bota dadin eskatzeko

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuia premiatzen duena “medicamentazo” izenarekin ezagutzen dena atzera bota dadin eskatzeko. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Taldeari atxikitako Nueva Izquierdako Foru Parlamentaria, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Azken hilabete hauetan, farmazi gastuari buruzko eztabaida handi bat sortu da, eta azken bi asteetan areagotu egin da; hasiera batean osasun sistema nazionalaren aurrekontu eskasiari zegoen lotua, eta bereziki 151. artikuluko autonomi erkidegoen finantzaketa defizitei.

Momentu hauetan pertsona asko dago, bereziki pentsionistak, zer gertatzen ari den oso ongi ez dakiena, eta are gehiago, zer gertatuko den etorkizunean ez dakiena.

Gaia nahiko garrantzitsua eta zaila da, eta irtenbide erraz eta azkarrak aurkitu nahi dira (horixe egin nahi izan du PPko gobernuak “medicamentazo” izenarekin ezagutzen denarekin). Horixe erakusten dute azken 15 urte hauetan behin eta berriz abiarazi diren proposamenek (horietako batzuk jarrera aurrerakoietatik) eta lortutako emaitza eskasek.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuia ondokora premiatzen du:

1. “Medicamentazo” izenarekin ezagutzen dena atzera botatzea eskatu dezala autonomi erkidegoek (beren osasun kontseilarien bidez) martxoan duten hurrengo bileran.

2. Ondoko alderdiak kontutan izango dituen konponbidea adostu dezala:

– Egite eta komertzializazio kostuak gutxitu produktu generikoak sartuz, ontzietako aleak gutxituz -kasu askotan-, banatzaileen eta farmazialarien mozkin-marginak eta baita publizitate gastuak berraztertuz.

3. Gizarte Segurantzak aurre egin deizaiola herritarrek etxeetan sendagai pilak edukitzeko joerari.

4. Sendagaiak zentzuz erabiltzeko kanpainen laguntzeko gizarte-negoiazioari berriro ekin deizaiola. Negoiazioa, eztabaida eta hausnarketa dira konponbide orekatu eta adostua lortzeko bidea.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

F saila:
GALDERAK

Agedna enpresaren grebak kalteturiko gutxitze psikikoko pertsonen arreta bermatzeko Gizarte Ongizate Departamentuak aurreikusi dituen neurriei buruzko galdera

ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Agedna enpresaren grebak kalteturiko gutxitze psikikoko pertsonen arreta bermatzeko Gizarte Ongizate Departamentuak aurreikusi dituen neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du idatziz erantzun dakion:

Azken aste hauetan ezagutu dugu Agedna enpresak bere langileekin daukan lan arazoa, batez ere Erronkari Ibarra zentroan (Iruñeko psikiatrikoan) gutxitze psikikoa duten 103 pertsonen arreta egiten dieten zaindarien.

Arazo horri ez zaio konponbiderik eman eta hazi egin da enpresaren eta langileen artean akordiorik lortu ez delako. Langileen eskaerak, funtsean, zaindarien lan baldintzetan oinarritzen dira.

Berriki, Biltzar honetako talde batzuek aukera izan dugu Agednako 80 zaindarien ordezkariak batek adierazi zizkigun kexuak entzuteko. Agerian geratu zen enpresaren eta langileen artean aspaldi luzeko gorabeherak izan direla. Gainera epaitegietan errekurrituta dago enpresari zerbitzua esleitu izana. Beste aldetik, Agednak bizi duen arazoak agerian utzi du hirugarren adinekoena edo gaitasunen

gutxitzea duten pertsonena bezalako jende-multzozaurkorrekin lan egiteko garaian hitzarmen batzuetatik besteetara dauden ezberdintasun nabarmenak.

Gizarte Ongizate Departamentuak porrotetik porrotera ibili da gizarte-sektore horiei arreta emateko politikak gauzatzeko orduan, zuzeneko arreta itunpeko edo diruz lagundutako entitateen eskutian utziz, inondik ere segurtatu gabe fondo publikoek kalitatezko arreta eta erakunde publikoen babesa behar dituzten pertsona horien beharrak benetan asetzea bermatuta ote dagoen.

Horrek guztiak agerian utzi du ez dagoela politika orokor eta koordinaturik irizpide argi eta homogeneoak dituenik, jende-multzoz horiei arreta ematen dieten entitateetarako, hain zuzen ere politika horren bidez ekidin ahal izateko, esate baterako, 103 pertsona zaurkor kaltetu dituen arazo hau.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1) Zein neurri ezarri ditu Gizarte Ongizate Departamentuak psikiatrikoan dauden pertsonen arreta bermatzeko, Agednaren grebak irauten duen bitartean?

2) Zein kudeaketa edo bitartekari-lan burutu du Gizarte Ongizate Departamentuak zentro hau kaltetzen ari den arazoari konponbidea emateko?

3) Zein neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak pertsona mota berari arreta ematen diharduten batzuen eta besteen hitzarmenen artean dauden ezberdintasun handiei konponbidea emateko?

4) Kudeaketa administratibo zuzena eramatera derrigorzeaz gainera, nola bermatzen du Nafarroako Gobernuak arreta zuzena eta kalitatezkoa ematen dela zentro horietan?

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Luis Gerardo López Eslava, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Parlamentuko Erreglamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Dirudienez, Nafarroako Gobernua ez zen joan (lehenengo aldia azken hamar urteetan) Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioek urtero egiten duten bilerara; ugatza desagertzeaz dagoen espezia da eta Nafarroan ere bizi da. Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

Egon al zen Nafarroako Gobernuaren ordezkariaren bat Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometitu dauden Pirinio aldeko administrazioek urtero egiten duten bileran?

Erantzuna ezezkoa izanez gero:

1.- Zeintzuk izan ziren han ez egoteko arrazoiak?

2.- Nor eman zien ez joteko agindua normalean bilera horretara joaten ziren funtzionarioei?

3.- Gobernua bereizi egin al da Ugatza Berreskuratzeko Planetik?

4.- Ba al du hurrengo bilerara joateko asmorik?

Iruñean, 1998ko otsailaren 23an

Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Luis Gerardo López Eslava, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako

ko Foru Parlamentaria, Parlamentuko Erreglamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez, Antolamendu eta Informazio Sistemen Zuzendari Nagusiak ondoko espedientea onetsi zuen: Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatu eta digitalizatzeko behar diren hardware eta softwaren hornidura kontratatzen duena; erabilitako prozedura hauxe izan da: prozedura negoziatua, publizitate eta lehiaketa gabea; eta Informática el Corte Inglés, S.A. enpresari esleitu zitzaion.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Esleitzeko erabili den sistema zergatik izan da prozedura negoziatua, publizitate eta lehiaketa

gabea?

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

2.- Beste enpresaren bati aurkeztu al zaizkio esleipen hau lortzeko baldintzak?

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Es-
va

Hidrocantábrico konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Catejónen eraikitzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Hidrocantábrico konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Catejónen eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Berriki jakin dugu komunikabideen bitartez, Hidrocantábrico konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat, lehenbiziko aldi batean 450 megavatioko hasierako potentzia izanen duena, eraikitzekeo jardueraproiektua aurkeztu duela.

Aipatu enpresak aditzera eman du Catejónen jarri nahi duela enpresa hori eta 20.000 milioi pezetako inbertsioa beharko duela.

Era berean, jakin dugu konpainia horrek azarozan onetsi zuela proiektua, nahiz eta ez dugun

jakin ahal izan Nafarroako Gobernuan instalazioa jartzeko baimen administratiboa eskuratzeko eskaera aurkeztu ote duen.

Hidrocantábrico konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Catejónen eraikitzekeo duen proiektuaren inguruan, ondoko galderei buruzko erantzuna eskatu da:

1. Zein da gure Komunitateko administrazioetan egin beharreko izapidaketa osoa, instalazioa behin betiko onetsi arte?

2. Galderak aipatzen duen proiektua izapidaketa horretako zein fasetan dago?

3. Noiz izan zuen Nafarroako Gobernuak Hidrocantábricok egindako jardueraproposamenaren berri?

4. Zertan datza, funtsean, konpainia horrek planteatzen duen zentrala?

5. Parlamentu honek duela gutxi onetsi duen Nafarroako Energia Planean ezarritako jardueren aurreikuspenak eta plangitza aldarazten al ditu instalazio horrek?

6. CO₂ eta bestelako gasen jaurtikitzea, nitrogeno oxidoa kasu, negutegi efektuari eta euri azidoari buruz bai mundu mailan bai Nafarroako Parlamentuan hartu diren erabakien barrenean al dago?

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez
Turrillas

Iberdrola konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen eraikitzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iberdrola konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Berriki jakin dugu komunikabideen bitartez, Iberdrola konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat, lehenbiziko aldi batean 400 megavatioko hasierako potentzia izanen duena, eraikitze jarduera-proiektua aurkeztu duela Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

Aipatu enpresak aditzera eman du Castejónen jarri nahi duela enpresa hori eta aipatu potentzia bikoitzko 28.000 milioi pezetako inbertsioa behar duela bigarren fase batean.

Era berean, jakin dugu konpainia horrek Nafarroako Gobernuan instalazioa jartzeko baimen administratiboa eskuratzeko eskaera osoa aurkeztu duela.

Iberdrola konpainia elektrikoak gasaren ziklo konbinatuko planta bat Castejónen eraikitze duen proiektuaren inguruan, ondoko galderari buruzko erantzuna eskatu da:

1. Zein da gure Komunitateko administrazioetan egin beharreko izapidaketa osoa, instalazioa behin betiko onetsi arte?

2. Galderak aipatzen duen proiektua izapidaketa horretako zein fasetan dago?

3. Noiz izan zuen Nafarroako Gobernuak Iberdrolak egindako jarduera-proposamenaren berri?

4. Zertan datza, funtsean, konpainia horrek planteatzen duen zentrala?

5. Parlamentu honek duela gutxi onetsi duen Nafarroako Energia Planean ezarritako jardueren aurreikuspenak eta plangitza aldarazten al ditu instalazio horrek?

6. CO₂ eta bestelako gasen jaurtikitzea, nitrogeno oxidoa kasu, negutegi efektuari eta euri azidoari buruz bai mundu mailan bai Nafarroako Parlamentuan hartu diren erabakien barrenean al dago?

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat Tuter-Cintruénigo errepidearen NA-160 eskualde errepidean

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ondoko galdera egin du: N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat Tuter-Cintruénigo errepidearen NA-160 eskualde errepidean. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldeko Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Gertatu diren istripu ugarien ondorioz -horietako batzuek hildakoak ere ekarri dituztenak (hildako bat gertatu zen azken istripua 1996ko irailean izan zen), Nafarroako Gobernuak -oraingoa eta aurreko biak- saiatu da konponbideak eta alternatibak bilatzen N-113 errepideko bidegurutzetarako. Bidegurutze horietako bat Tuter-Cintruénigo NA-160 eskualde-errepidekoa da.

Gobernu honek berak, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren bidez, alderdi hura bisitatu zuen konponbide bat aurkitu nahian.

Berriki, Cintruénigoko Udalak, Herrilan Departamentuarekin batera, alternatiba bat hautatu du.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein izan da hautaturiko alternatiba aukeratzeko metodoa eta zein aldagai hartu dira aintzat?

2. Zein izan dira Departamentuak urte hauetan aztertu dituen alternatibak N-113 errepidea zeharkatzen dituzten bidegurutzaketei konponbidea emateko, Cintruénigoko saihebidetara bezala hartu daitekeen horretan.

3. Zein dira Nafarroako Gobernuaren planak NA-160 eta N-113 errepideetako bidegurutzeari buruz, gogoan harturik bidegurutze hori oso aurriskutsua dela? Ba al dago lan horiek burutzeko eperik, NA-160 eskualde-errepideari dagokionean? Halakorik izatekotan, jakin nahi da lanak noiz hasiko diren eta nolakoa den aukeratutako konponbidea.

4. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak Cintruénigo hiriko sektore handi batean N-113 errepideko bidegurutzeari aukeratu den planteamentuak sortu duen ezinegona eta ustekabea, batez ere trafikoa alderdi dotazional batetik sartu nahi delako (ikastetxe publikoa, kirol instalazioak, pasealekua eta abar)?

5. Zein dira bestelako aukerak baztertzeko izan diren arrazoiak, kontuan hartuz desjabetza penak ekindinen lituzketela Udalak behar diren lur gehienak erreserbatuta ditulako behar horretarako?

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jardueri buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jardueri buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Garraioaren Hiria egiteko lanen ondorioz, Imarkoainen ubide txiki bat egin zen aipatu hiritik zetorren ura jasotzeko.

Garraioaren Hiriaren hustubide lanak ondokoek osatzen dute: 1400mm eta 600 mm diametroko bi hodi; hodi horiek eramaten dute ura aipatu ubide txikira; ubide horrek zenbait zatitan 50 cm-ko zabalera du gutxi gora-behera.

Aurreko udaran jadanik, ekaitzak zirela eta, ubide honek ezin izan zuen ura bideratu, hain zuzen ere, Garraioaren Hiriak dituen 600.000 m² karratu baino gehiagotan eroritako ura, eta horren ondorioz urak ondoko lursailak, eta baita gertuko etxebizitzak zenbait beheko solairu hartu zituen.

Zenbait galdera erantzutea eskatu nuen Imarkoango Garraioaren Hiriko hustubide sistemaren egoerari buruz, eta Herrilan Garraio eta Komunikazio Kontseilariak igorritako erantzunean Kalamuz eta Arkotxain errekek aipatzen dira, eta zera esaten da: Garraioaren Hiriaren egindako lanek, aipatu ekaitzak direla eta uholdeak sortarazteko adina ez dutela erreka horien egoerarik aldatu.

Kontseilariak emaniko erantzunean ere azaltzen zen bere Departamentuak, Herrilan Zerbi-

tzua bidez, aurreikusia zuela bi erreken azterlan hidrológico eta hidraulikoa egitea, erreka horiek zenbait itzultzealditan eraman ditzaketan gehienezko emariak neurtzeko, eta baita erreka horiek ura husteko duten ahalbidea neurtzeko ere.

Halaber, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak zioen, aipaturiko azterlanak txosten baloratu batekin osatzen ari zirela, hain zuzen Garraioaren Hiritik datorren errekek, Imarkoaindik pasatzerakoan, behar adinako uharka izateko egin behar direnak aztertzen duena, eta horrela gehienezko emaria ere uholderik sortu gabe eraman ahal dezan.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jardueri buruz ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek urak Kalamuz eta Arkotxain erreketan isurtzen dituztela al deritzo? Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aurreko udarako uholdeak Talluntxe errekek gainezka egin zuelako izan zirela? Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Kalamuz eta Arkotxain errekek Dorre-Gerendiain eta Alaizko urak jasotzen dituztela hurrenez hurren? Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Kalamuz eta Arkotxain errekek eta Talluntxe erreka bereiztuta daudela erdian Dorreko bidea dagoelako, eta Talluntxeko erreka izan zela gainezka egin eta uholdea eragin zuena?

2.- Zer helburu du Arkotxain eta Kalamuz erreketan azterlan hidrológico eta hidraulikoak egitea?

3.- Zer jarduera ondorioztatzen dira txosten baloratutik eta zer kostu dituzte han aurreikusitako lanek?

4.- Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Imarkoango Kontzejuak kontratatutako injeneru tasatzaile batek kalteen balorazio txostena egin zuela? Ba al du asmorik Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kaltetutako biztanleei kalte horiek ordaintzeko?

5.- Aurreikusita al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bileraren bat egin edo lan saioren batera deitzea Imarkoingo Kontzejua, horiei txosten, azterlan eta txosten balortuak azaltzeko?

6.- Aurreikusita al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hilerriko bidean hobekuntzaren bat egitea (Garraioaren Hiria eraikitzen aritu ziren kamioien joan-etorriak arrunt hondatu zuten)?

7.- Aurreikusita al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Kalamuz erreka-zen azken zatia (Elorz ibaian ibairatzen dena) egokitzeko behar diren jarduerak aurrera eramatea, edota Ebroko Ur Konfederazioari hala egiteko eskatzea?

Iruñean, 1998ko otsailaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Gobernuak laneko arriskuei aurrea hartzeko aurreikusi dituen jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak laneko arriskuei aurrea hartzeko aurreikusi dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak laneko arriskuei aurrea hartzeko aurreikusi dituen jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat jaunaren erantzuna:

1. Lan Ikuskaritza Lan, Gizarte Segurantzza eta Gizarte Gaietako Ministerioaren menpe dago, organikoki, eta Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik ikuskaritzako giza-baliabide gehiago jartzeko. Aipatu behar da Nafarroari dagozkion 9 postuak beteta daudela.

2. Nafarroako Lan Osasuneko Institutua, Lan-istripu eta Gizarte Segurantzako taramekin batera, kanpaina bat egiten ari da lan-arriskuei aurrea hartzeko arauak Nafarroako 1.200 enpresatan jartzearen jarraipen eta sustapenerako. Hiru ekinaldi

ditu, 18 hilabeteko epean. Laister ekingo zaio antzeko kanpaina bati eraikuntzaren alorrean, alorraren berezitasunei eta oraintsu onartu duten eraikuntza-lanei buruzko dekretuari zor zaizkien egokitzapenekin.

Era berean, informazio eta prestakuntza kanpaina handia egiten ari dira laneko arriskuei aurrea hartzeko, maila guztietan, zuzenean zein beste jarduketei lagunduz. Lan-arriskuei aurrea hartzeko eginkizunak garatzeko gaitze-plana abiatzen ari da, oinarrizko mailan, Nafarroako enpresetan.

Lan Osasunaren Batzorde Tekniko Aholkume-maila bere jarduketetan dihardu Nafarroako lan osasunari buruzko diagnostikoa eta planaren gainean, eta 1998an bukatzea dago aurreikusita.

Aholkularitza eta laguntza teknikoarekin ere jarraitzen dute, langile, sindikatu, enpresario eta haien ordezkariak eskatuta.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin batera burutzen diren jarduerak ere areagotu egingo dira.

Ekintza plan guztiak aurkezten zaizkio Nafarroako Lan Osasun eta Segurtasun Kontseiluari eta dagozkion batzordeei, eta azken horiek egiten dute hurbileko jarraipena.

3. Nafarroako Lan Osasuneko Institutua sortu zenetik, Foru Komunitatean gai honen inguruan eskumena duten osasun- eta lan-administrazioak koordinaturik daude Nafarroan.

Aipatu erakunde autonomoko gobernu kontseiluan eta Nafarroako Lan Osasun eta Segurtasun

Kontseiluan badira Osasun Departamentuaren, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren eta Estatuko Administrazioaren (Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza) ordezkariak. Sindikatuek eta enpresarioen antolakundeek ere ordezkaturata daude.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin batera ere badihardute, koordinaturik.

4. Nafarroako Gobernuak lan-arriskuei aurrea hartzeko arauak bere esparrura egokitzeko proposamen bat aurkeztu die Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparruan ordezkariak duten sindikatuei.

(Arauek ez dute aurrea hartzeko eredu publikorik aurreikusitako).

5. Gobernuak, 1986an transferentziak jaso zituenetik, badu erregistro bat, bai laneko arauak, bai laneko segurtasun eta osasunekoak haustegatik lan-agintaritzaren aurrean izapidatzen diren zehapen-espeditente oro jasotzen duena. Beraz, laneko segurtasun eta osasuneko arauak haustegatik zehapena jaso duten enpresen erregistro berezirik ez bada ere, datu horiek izan ditzakegu, eta baditugu, eduki ere.

Iruñean, 1997ko azaroaren 5ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Lanaldia murrizteak Nafarroako ekonomian izango lukeen eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Lanaldia murrizteak Nafarroako ekonomian izango lukeen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du langabeziaren arazoari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat jaunaren erantzuna:

Estatuko Administrazioari dagokio lan-legediaren eskumena. Ondorioz, Nafarroak ez du horren moduko neurririk hartzeko ahalmenik.

Espanian ez dago aurreikusita lanaldia 35 ordura jaisteko neurri orokorrik.

Ez dago aipatu neurria ezartzearen ondorei buruzko azterketarik, Nafarroako ekonomia mailan, behintzat; iritzirik jantziaren arabera, hala ere, aipatu neurria egungo egoeran modu orokorrean erabiltzeak eragin oso txarra izango luke ekonomian eta enpleguna, oro har.

Neurri osagarriez denaz bezainbatean, Lan Gaien Konferentzia Sektorialean ari dira lanean, lanaldi partzialeko kontratuak eta enplegu-guneak sustatzeak enpleguan izan dezakeen eragina aztertzeke

Iruñean, 1997ko azaroaren 5ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

AKATS ZUZENKETA

1998ko otsailaren 24ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian. Akats bat dagoela ikusirik, behar den zuzenketaren testua ematen da ondoren:

IV. eranskineko (Proba mekanografikoa) c) idatzatiko azken lerroaldearen eta ondoren datozen "puntuazioen" ordez ondoko testua jarri behar da:

Gutxienezko maila hori gainditzen duten ariketak, baliozko sakaldi kopuruaren arabera, gehienetik gutxienera ordenatuko dira eta hurrengo baremoaren arabera kalifikatuko dira:

–Baliozko 250 s.m.,	7,50 puntu.
–Baliozko 251tik 260rainoko s.m.:	8,25 puntu.
–Baliozko 261tik 270rainoko s.m.:	9 puntu.
–Baliozko 271tik 280rainoko s.m.:	9,75 puntu.
–Baliozko 281tik 290rainoko s.m.:	10,5 puntu.
–Baliozko 291tik 300rainoko s.m.:	11,25 puntu.
–Baliozko 301tik 310rainoko s.m.:	12 puntu.
–Baliozko 311tik 320rainoko s.m.:	12,75 puntu.
–Baliozko 321tik 330rainoko s.m.:	13,50 puntu.
–Baliozko 331tik 340rainoko s.m.:	14,25 puntu.
–Baliozko 341 s.m. edo gehiago:	15 puntu.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

AKATS ZUZENKETA

1998ko otsailaren 24ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Akats bat dagoela ikusirik, behar den zuzenketaren testua ematen da ondoren:

IV. eranskineko (Proba mekanografikoa) c) idatzatiko azken lerroaldearen eta ondoren datozen "puntuazioen" ordez ondoko testua jarri behar da:

Gutxienezko maila hori gainditzen duten ariketak, baliozko sakaldi kopuruaren arabera, gehienetik gutxienera ordenatuko dira eta hurrengo baremoaren arabera kalifikatuko dira:

–Baliozko 250 s.m.,	7,50 puntu.
–Baliozko 251tik 260rainoko s.m.:	8,25 puntu.
–Baliozko 261tik 270rainoko s.m.:	9 puntu.
–Baliozko 271tik 280rainoko s.m.:	9,75 puntu.
–Baliozko 281tik 290rainoko s.m.:	10,5 puntu.
–Baliozko 291tik 300rainoko s.m.:	11,25 puntu.
–Baliozko 301tik 310rainoko s.m.:	12 puntu.
–Baliozko 311tik 320rainoko s.m.:	12,75 puntu.
–Baliozko 321tik 330rainoko s.m.:	13,50 puntu.
–Baliozko 331tik 340rainoko s.m.:	14,25 puntu.
–Baliozko 341 s.m. edo gehiago:	15 puntu.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía